



## IZANGAIAREN FITXAREN BERRITASUNAK

2022/2023 ikasturteko birbaremazio-prozesuan, berrikuntza hauek gertatu dira izangaiaren fitxaren konfigurazioan:

- Prestakuntza akademikoa" atalean, izangaiak dituzten eta behar bezala egiaztatu diren titulazio akademiko guztiak agertzen dira. Ez da inola ere agertzen izangaiak beste titulazio batzuen atalean lortzen duen guztizko puntuazioa, pertsona berarentzako puntuazio hori alda baitaiteke, dagoen espezialitateen kidegoan/mailan sartzeko baldintzen arabera. Beraz, izangaiaren fitxan administrazioaren esku dauden tituluen eta batez besteko noten datua baino ez da agertzen. "Beste titulazio batzuk" ataleko puntuazioa behin-behineko zerrendak argitaratzean adieraziko da.
- Espediente akademikoen batez besteko noten kasuan, zerrendetan sartzeko aukera ematen duten titulazioenak baino ez dira islatzen; hau da, masterren eta/edo doktoregoen espediente akademikoaren batez besteko nota ez da fitxan islatzen, ez baitute eraginik merezimenduen baremoan.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko Aginduaren I. eranskinean ezarritakoaren arabera egingo da prestakuntza akademikoaren eta beste titulazio batzuen baremoa. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan aldi baterako irakasleen beharrak estaltzeko izangaien zerrenda kudeatzeko araudia onartzen da.